

# ***Ingurumen Buletina***

- 1. Natura eskubideen jabe: martxoak 14an denok Bilbo eta Iruñara*
- 2. Solokoetxe SOS: penintsulako erradiazio maila altuenak dituzte*
- 3. Berriro diogu: AHT ez da errentagarria ekonomikoki, ez sozialki, ez eta ingurumen ikuspuntutik*
- 4. Frackinga, mehatxua geroz eta gertuago*
- 5. Proposamenak ELAn alternatibak bultzatzeko*

**1.Natura eskubideen jabe: martxoak 14an denok Bilbo eta Iruñara**

Adierazpen hau sinatzen dugun eragileok, martxoaren 14ean Bilbon eta Iruñean burutuko diren manifestazioetara dei egiten dugu Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak jasotzen dituen eskubideak bete daitezela exijituz. Manifestazio honetan parte hartzeko dei publikoa egiten dugu honako arrazoiengatik:

Gure eragileetan eta baita modu kolektiboan ere naturari dagozkion eskubideekin konprometituak gaude, ingurumen osasuntsua eraikitzeko, pertsonon, naturaren eta bizitza modu ezberdinen arteko ongizatea helburu duen interakziorako, komunitatearen mesedetan eginiko kudeaketa (gure belaunaldia eta etorkizunekoak), baliabide naturalena, modu iraunkor eta ekologikoan produzituriko elikagaiak eta merkatuen eta interes espekulatzailen gainetik pertsonak eta politika sozialen eraginkortasuna jarriko dituen bizitza eredu berria.

Euskal Herriko erakundeei, natura, baliabide naturalak eta lurraldea, gero eta handiagoak diren ingurumen eta sozial arloko kosteak sortuz, gutxi batzuren negozioarako tresna bihurtzen dituzten

politika publikoen aldaketa exijitzen diegu. Politika publiko horien oinarritzko aldaketak beharrezko neurriak hartzea eskatuko du gai hauei begira:

- Euskal Herriko marko araugilean Karta Sozialean espreski jasotako eskubideak txertatu behar dira.

- Politiken eta beharrezko diren baliabideen implementazioa, lurzorua, baliabide naturalak eta bizitzeko moduen kudeaketarako, interakziotik eta elkarrekiko onuratik, eta hauen kudeaketa komunitatearen mesedetan.

- Gure osasuna bermatzeko elikadura burujabetza politikak gure komunitatean efektibo egitea, produkzioa eta kontsumoaren arteko harreman orekatua eta arrantza, nekazaritza eta gure baliabide naturalak bezalako sektore estrategikoen defentsa.

Zentzu honetan lehenbailehen hau exijitzen dugu:

Energia produkzioari dagokionez:

- Euskal Herriko lurraldeak, energia nuklearraren produkziotik libre deklaratzeko, Garoñako Zentral Nuklearra lehenbailehen ixtea, hidrokarburoen bila Kantauri itsasoko prospekzioak eta petroleoa ateratzeko frackinga bezalako teknika zentzugabeak

alboratzea, edo hondar bituminosoetatik ekoizturiko petrolioaren erabilera.

- Plan zehatza, efektiboa eta behar duen aurrekontuarekin energia berriztagarri eta ordezkagarriak sortzeko, kalitatezko enplegua sortaraziko duena.

- Energiaren produkzio eta salmentan, administrazio publikoen ekinbide zuzena, era honetara oligopolioen botereari amaiera emanaz elektrizitatearen produkzioan eta salmentan.

Mugikortasunaren kudeaketari dagokionez:

- Erakundeetatik parte hartze sozialerako tresnen sorrera eta jendarteari galdeketak, mugikortasunaren ingurumen aldetiko kudeaketa eraginkor, komunitario eta publikorako.

- AHTari ez. Ekonomikoki, sozialki eta ingurumenari dagokionez bideragarria ez den azpiegitura baten lanak gelditzea, moratoria eta auditoria soziala.

- Erabilera sozialerako euskal trenbide sarea.

- Bidaiarien garraioaren kudeaketa publikoa, mugikortasunaren murrizketan, intermodalitatean, irisgarritasunean eta energia kontsumo gutxienekoan oinarritua.

Materialen eta hondakinen kudeaketari dagokionez:

- Elite ekonomikoaren aberastasuna areagotzeko eraiki duten ekonomia lineal, xahutzaile eta kutsagarriaren ordeza, ekonomia zirkular eta efiziente bat eraikitzeko neurriak bultzatzea, hau da, Zero Zabor ereduaren garatzea, natur baliabiden gaineko presioa, zabor metaketa eta kutsadura txikituz eta ahal den neurrian desagerraraziz. Gutxiagorekin hobe bizitzea posible da sistema ondo antolatuz gero.

- Hondakinetako materialak suntsitzen dituzten eta ingurumena eta osasuna kaltetzen dituzten errausketa bezalako tratamendu kutsagarriak baztertzea.

- Produktuen ekoizpenean materialak birziklatzeko edo berrerabiltzeko berreskuratu ahal izango direla bermatzeko araudia garatzea.

- Birziklatu ala konpostatu ezin diren materialak tratatu gabe isurtzea galarazteko araudia garatzea.

- Kontsumo arduratsua sustatzeko kultura sozial eta instituzionala sortzea.

Lurralde antolaketari dagokionez:

- Lurraldearen antolaketa erradiala, zerbitzuetara sarbidea bermatu ahal izateko eta produkzio eta kontsumoaren arteko harreman zuzena bultzatu ahal izateko.

- Lurzorua eta natur baliabideak

iraunarazteko, euskal herritarren bizi baldintzen onurarako eta antolaketa egoki baterako gure lurraldeen artean koordinaturiko parte hartze sozial eta instituzionalerako tresnaren sorrera.

*(Sinatzaileak: ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE, HIRU, Fracking ez, AHT Gelditu! elkarlana, Basagure ekologista taldea (Basauri), Eguzki, Ondarroako Ituna, Meatzaldea bizirik ekologista taldea, Gipuzkoa Zero Zabor, Ekologistak Martxan, Garoñaren Kontrako Foroa, Gure Energia, Ekozain talde ekologista (Markina).)*

## **2. Solokoetxe SOS: penintsulako erradiazio maila altuenak dituzte**

Solokoetxe eskola publikoa Bilboko Alde Zaharrean dago kokatua, honaino ezer ez da harritzekoa. Eta 40 metrora 13 telefonia antena dituela esanez gero? Ba batzuk jada gehiago harritzen gara, Europako Kontseiluaren 1815 Ebazpenak kutsadura elektromagnetikotik bereziki babestu behar diren eremu sentsibletzat baititu eskolak. Kanpoan  $0,1\text{uW/cm}^2$  eta barruan (eskoletako geletan esaterako)  $0,01\text{uW/cm}^2$  erradiazio mailatik ez pasatzeko gomendioa egiten du. Solokoetxeko ikasleek sufritzen

duten erradiazio elektromagnetikoa  $12\text{uW/cm}^2$  da, europar kontseiluko osasun gomendioak baino ehunka aldiz altuagoa. Penintsulako erradiazio maila altuenetakoa du ikastetxeak. Egoera honen aurrean ezinezkoa da beste alde batera begiratzea.

Ebidentzia zientifiko nahikoa dago kezka izateko. Osasunaren Mundu Erakundearen (OMS) Minbizia Ikertzeko Nazioarteko Agentziak (IARC) 2011tik erradiazio hauek minbizia sortu dezaketen eragileen zerrendan sailkatuta ditu. Bioinitiative mega-ikerketak zientifikorako eginiko 4.000 azterketa baino gehiagok, 2008 eta 2009ko Europako Parlamentuko ebazpenek, Europako Ingurumen Agentzia eta Europar Kontseiluko Asanblada parlamentarioaren 1815 Ebazpenak, lobbie industrialekin zerikusirik ez duten zientzialari espezializatuen gomendioak jasotzen dituzte. EAeko Parlamentua ere 1815 Ebazpena atxiki zen.

Eskola honetako gurasoak denbora asko daramate beraien sema alabak babesteko borrokan. Askotan eskatu diote Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari zentroa apantailatzeko, erradiazio maila altuari aurre egiteko neurri babesle gisa. Horrela egin zen Gasteizko Ibaiondo eskola publikoan, eta

Solokoetxek baino erradiazio maila baxuagoa zuen. Horregatik da harrizkoa kasu honetan ere gutxienez neurri berberak ez hartzea. Hezkuntza Sailak hasiera batean eskola apantailatuko zuela agindu zuen, baina gero atzera bota zen, arrazoirik eman gabe. Baina EAeko Parlamentuak dagoeneko 23.000 euroko partida bat zuen onartua lan horiek burutzeko. Nora joan da diru hori? eta zertarako erabiliko da?.

Arazo honen funtsean telekomunikazio konpainia handien interesak daude. Komeni zaien lekuan jartzen dituzte antenak, kalterik egiten duten axola gabe. Oraindik larriagoa da Bilboko Udalak duen jarrera, edo jarrera falta, bere esku baitago europako osasun gomendioak betearazteko eta erradiazio maila baxuak izateko neurriak hartzea. Donostia eta Gasteizko udalek dagoeneko ordenantza berriak onartu dituzte, Europako Kontseiluaren 1815 Ebazpenak gomendatzen duen bezala, erradiazio elektromagnetikoa 0,1uW/cm<sup>2</sup> maila mugatzeko. Zergatik ez du berdina egiten Bilboko Udalak?

Solokoetxeko egoera jasanezina da. Eskolaren apantailamendua premia larria duen neurria da, nahiz eta ez izan auzo guztiarentzat irtenbidea, auzokideek ere

sufritzen baitituzte antenen ondorioak. Zoritxarrez, hiru urtez leuzemiaren aurka borrokan egon den Solokoetxeko ikasle ohi bat hil egin da. Baldin eta aukera bakar bat badago, ikasle hau horrenbeste urtez egon zen zentroan dagoen erradiazio altua eta leuzemia hau erlazionatua daudenaren zalantza izpi bat baldin badago, nahikoa izan beharko litzateke ardura dutenek berehala babes neurriak hartzeko. Badakite hiru minbizi kasu egon direla eta ikasle askok burukominak, kontzentrazio arazoak, ilea jaustea,... sufritzen ari direla. Zerren zain daude Hezkuntza Saila eta Bilboko Udala?

Solokoetxen duten arazoaren larritasuna ikusita ELAk bere egiten ditu eskolako guraso elkartearen aldarrikapenak. Gurasoek eskatzen duten bezala, zuzendaritzari eskatzen diogu bere esku dauden eta arriskua modu esanguratsuan murrizten dituzten neurriak hartzeko, hala nola wifia itzali eta ikasleak hutsik dauden eta esposizio maila baxuagoa duten geletara pasatzea. Aldi berean, Hezkuntza Sailari exijitzen diogu zentroa berehala apantailatzeko eta Bilboko Udalari erradiazioa 0,1 W/cm<sup>2</sup> baino baxuagoa izan dadin ordenantza bat onartzea. Berain ardura da ikasleak eta herritarrak ikusezina baina oso

arriskutsua den mehatxu honetatik babestea.

### **3. Berrito diogu: AHT ez da errentagarria ekonomikoki, ez sozialki, ez eta ingurumen ikuspuntutik**

David Hoyos eta Germá Bel ekonomilariak Gasteizko Parlamentuko Ingurumen Komisioan agerraldia egin dute, AHTaren bideragarritasunaren inguruan egin duten azterketa azaltzeko. Hauen arabera, Euskal Y, munduko gainontzeko abiadura handiko sare gehienak bezala, defizitariora da. Urtean 150 milioi bidaiari dituen Tokio-Osaka tartea eta urtean 25 milioi bidaiari dituen Paris-Lyon tartea soilik dira errentagarriak ekonomikoki. Alderaketa egiteko, estatuko sareak 2.500 kilometro ditu eta 28 milioi bidaiari ditu urtero. Errentagarritasun soziala izateko, 500 kilometroko linea batek urtean 8 milioi bidaiari izan behar ditu.

Ingurumen ikuspuntutik ere iraunkorra ez dela baieztatu digute. AHTren eraikuntza fasean igortzen diren CO2 emisioak hain altuak dira, zein urtean 8 milioi bidaiari dituen linea batek 30 urte behar dituela iraunkorra izaten hasteko. Estatuko sarean ez dago linea iraunkorrik,

gehien gerturatzeko dena Madril-Bartzelona linea da, 6 milioi bidaiari hartzen dituelako eta hegazkina ordezkatzeko duela neurri handi batean. Gainontzekoek ingurumena suntsitzen dute eta inoiz ez dituzte emisioak konpentsatuko. AHTk errepideko trafiko gutxi bereganatzen du, 100 eta 150 kilometro bitarteko mugimenduak autoarekin egiten jarraitzen dira, norbere erara egokitu daitekeelako. Ohiko trenbide sareari eta hegazkinari kentzen dizkiote bidaiariak.

Trenak gaur egun duen diseinua kontuan izanda, bideragarria izateko modu bakarra hiriburuen arteko bidaiak 25 euro baino gehiago kostatzea litzateke. Momentu honetan Donostia eta Bilbo arteko autobus bidaia batek Lurraldebus txartelarekin 6,46 euro balio du, eta 70 minutu irauten du. AHTa eliteentzat da, edo bidaia hauek ordaintzeko gai diren enpresa handientzat. Frantses Estatuko sarean, bidaiarien %30a errenta oso altuak dituzten populazioaren %10ari dagozkie. Errenta altuenak dituztenei eta enpresa handiei egiten zaien aurrekontu bidezko aportazio izugarriaren adibidea da.

Hoyos eta Belen arabera, AHTk ez du jarduera turistikorik sortzen, ez du inbertsio produktiborik ekartzen, ez kokapen enpresarialik ere, eta gainera “tunel efektua”

eragiten du, hau da, oso ongi konektatzen ditu bi hiriburu baina tartean dagoena desartikulatzen du. Onura jasotzen duten bakarrak eraikuntza enpresen eta ingeniari-tza kontsultarien negozio pribatua da, obra publikotik onura jasotzeko konglomeratu baitute muntatuta. Negozio zirkulu hau ate birakari-ekin konbinatuta dago.

Eta guzti hau jakinda, oraindik ere Eusko Jaurlaritz-a eta Nafarroako Gobernua zentzugabekoa den eta herritarron gehiengoari inongo onurarik ekartzen ez digun proiektu honekin tematuta daude. Gutxi batzuk dira onuradunak, beste guztion kontura.

#### **4. Frackinga, mehatxua geroz eta gertuago**

EAEn dagoeneko tramitatzen ari dira fracking bidez hidrokarburoak ikertzeko baimenak. Sei dira enpresa interesatuak: Shesa, Petrichor Euskadi, Cambría Europe, Montero Energy, Frontera Energy eta BNK Sedano Hidrocarburos.

Baimen batzuk bi erkidegori eragiten die, eta horregatik Rajoi-ren gobernuaren esku geratzen da baimena ematea. Kasu hauetan argi dago zein izango den erabakia, teknika honen aldeko legeak onartu

baitituzte eta Auzitegi Konstituzionalak erkidego batzuetan onartutako frackingaren kontrako legeak bertan behera uztea lortu baitute. BNK enpresak aurreratu du 2016an hasi dela lanean Urraka deritzon baimenaren eremuan (Arabak eta Burgosen).

Baina badira EAeri bakarrik eragiten dien baimenak ere eta kasu hauetan erabakia Eusko Jaurlaritzarena da. Eta Parlamentuak aho batez frackinga debekatzeko HEL (herri ekimen legegilea) onartu zuen arren, ez dago argi zein izango den baimen hauen inguruan hartuko den erabakia. Datu asko daude baimenak emango dituztela eta frackinga zoritxarrez gure herrian errealitatea izango dela pentsarazten digutenak.

Lehenik eta behin, Shesa (Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi) Eusko Jaurlaritzak parte hartzen duen enpresa publiko bat da. Hau da, baimena eskatu duen enpresetako bat Eusko Jaurlaritzarena da. Gainera, Arantza Tapiak, Lehiakortasunerako Sailburuak, honakoa esan zuen parlamentua "Eusko Jaurlaritzak utzi ezin duen ardura dauka erkidegoko lurrazpian dauden baliabide energetikoak ezagutu eta ebaluatzeko, eta hornikuntza bermatuko duen energia politika iraunkorra diseinatzeko". Nahiko garbi uzten du Eusko jaurlaritzak hartu dezakeen

erabakia.

Bestalde EAJ eta PPK Fracking EZ taldeak, 103.589 sinaduraren babesarekin, teknika hau debekatzeko aurkeztutako HELren aurrean hartu duten jarrera dago. Udaletxe eta Foru Aldundietarako hauteskundeak gerturatzeko ari direnez, eta bozen aurretik beraien jarrera azaldu nahi ez dutenez, HELren tramitazioa geldiaraztea erabaki dute. Horretarako aitzakia gaien adituak diren pertsonen iritzia entzun nahi dutela izan da. Horrela ez dute ezer esan beharko hauteskundearen aurretik.

Hain larriak diren gertaeren aurrean eta gizartearen aldetik frackingak duen gaitzespenaren aurrean, hurrengo hilabeteak erabakigarriak izango dira. ELAk berean jarraituko du hidrokarburoen ikerketa eta ustiaketa, nahiz lurrean fracking bidez, zein

Kantauri itsasoan prospekzioen bidez, Euskal Herrian posible izan ez dadin.

## **5. Proposamenak ELAn alternatibak bultzatzeko**

ELAk bere afiliatuen artean dinamika bat jarri du martxan egungo eredu kapitalistari aurre egiteko alternatibak ezagutzeko jardura ezberdinak antolatuz. Afiliatu taldeak eratu dira gai ezberdinen inguruan interesa dutenekin: ingurumena, feminismoa, justizia soziala,... Otsailean mahai inguru ezberdinak antolatu ditugu Goiner, Fiare edo Bizi bezalako taldeekin. Martxoan elikadura burujabetzaren inguruko formakuntza saioak antolatu dira Bizilurrekin. Talde hauetan parte hartu nahi baduzu jarri zaitetz kontaktuan ELAekin, guztiok zarete ongietorriak.